AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

5376

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 11koa, Segurtasuneko sailburuordeak eta Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak elkarrekin emandakoa; horren bidez deialdia egiten da Ertzaintzako intendente, komisario eta komisariondoko kategorietako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak behin betiko betetzeko prozedurarako, izendapen askeko sistemaren bitartez eta superintendente, intendente, komisario eta komisariondoko kategoriei dagozkien lanpostuetarako zerbitzu-eginkizunak esleitzeko prozedura erabiliz hornitu beharrekoak direnak.

Segurtasuneko sailburuaren 2013ko azaroaren 20ko Aginduen bidez Ertzaintzaren egitura organiko berria eta bere lanpostu-zerrenda onartu ondoren, aginte-eginkizunak dituzten eta aldi berean betetzeko sistema izendapena askea duten lanpostuei dagokienez, beharrezkoa da hutsik daudenak behin betiko hornitzea.

Hala ere, kontuan hartu behar da une honetan Ertzaintzaren aginte-egitura oraindik ez dagoela erabat garatuta eta; horrenbestez, ez dago lanpostuen zerrendak eskatutako kategoriaren baldintza betetzen duen ertzain nahikorik (zehazki superintendente, intendente eta komisariondoko kategoriak). Lanpostuak hornitzeko sistema behin betiko amaitzen denean, segurtasun publikoko zerbitzuak Ertzaintzaren erabateko eraginkortasuna eskatzen du; horregatik, premiazkoa izango da, kategoriaren baldintza bete ez arren, eskatutako eskala berean edo beheragoko hurreneko kategorian dauden ertzainei goragoko kategoriako eginkizunak ematea. Hori berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-irizpideei jarraikiz egingo da eta prozedura publiko baten bitartez, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 72. artikuluaren 1. eta 5. zenbakietan eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudiaren 25. eta 26. artikuluetan aurreikusten denaren arabera.

Zerbitzu publikoa zaintze aldera, aginte-postuak legez aurreikusitako sistemaren bidez lehenbailehen betetzeko dagoen beharra ikusita eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3. artikuluan ezarritako elkarlan- eta eraginkortasun-printzipioak aintzat hartuz, gomendagarria da behin betiko hornitzeko eta zerbitzu-eginkizunak esleitzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia aldi berean egitea; hain zuzen, erakundean eskatutako kategoria duten karrerako funtzionariorik ez egoteagatik hutsik dauden lanpostuei dagokienez.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2013ko abenduaren 4ko Ebazpen bidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legearen 14. artikuluaren babesean, erabaki da Ertzaintzako superintendente, intendente, komisario eta komisariondoko kategorietako lanpostuetarako zerbitzu-eginkizunak esleitzeko eskumena goragokoak bereganatzea, lanpostu horiek gaur deitzen den prozeduraren xede dira eta, halaber, prozedura hori ohiko izaeraz Giza Baliabideen Zuzendaritzari esleitu zaio Segurtasun Sailaren egitura Organiko eta Funtzionalari buruzko Dekretuaren 12.2.a).7 artikuluan oinarriturik; hain zuzen, antolaketa-eredu berria ezartzeak berekin ekarriko duen langile-birbanaketagatik. Izan ere, lanpostu horiek Ertzaintzan erantzukizunik handiena dutenak dira eta beren hornikuntza-sistema izendapen askea da eta; horrez gain, beroriek behin betiko

betetzeko eskumena Segurtasuneko sailburuordeari dagokio. Beraz, bereganatze hori burutu beharreko esleipenen garrantziak eragin du.

Segurtasun Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 13.2.d) eta 9. artikuluek Segurtasuneko sailburuordeari eta Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hurrenez hurren, esleitzen dizkien eskumenen babesean, eta goragokoak eskumenak bereganatzeari buruz Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emandako 2013ko abenduaren 4ko Ebazpena betetzeko

EBAZTEN DUGU:

Lehenengoa.– 1. eranskinean zerrendatzen diren lanpostuei loturik, betetzeko sistema izendapen askea duten eta ebazpen hau ematen den unean hutsik dauden lanpostuen hornikuntzari begira:

1.– Behin betiko betetzeko deialdia onartzen da.

2.– Zerbitzu-eginkizunak esleitzeko deialdia onartzen da.

Bigarrena.– Lanpostuen behin betiko hornikuntza eta zerbitzu-eginkizunen ondorengo esleipena egingo dira kontuan izanik hurrengo

OINARRIAK

Lehenengoa.– Behin betiko hornikuntzaren prozeduran parte hartzeko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute eskatutako baldintza orokorrak eta eskainitako lanpostuak edukitzeko lanpostuen zerrendan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten Ertzaintzako karrerako funtzionario guztiek. Horrez gain, hauetako egoeraren batean egon beharko dute: zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan, seme-alabak zaintzeko eszedentzian eta Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 82. artikuluan aurreikusitako eszedentzian. Halaber, parte ahal izango dute lege horren 89.2 artikuluan aurreikusitako eran zerbitzu aktibo egoerara itzultzen diren funtzionarioek.

2.– Bestetik, deialdi honetan aurreikusitako prozeduraren bitartez zerbitzu aktibora itzuliz hauek ere parte ahal izango dute: nahitaezko eszedentzia egoeran daudenak edo beste herri-administrazio batzuetan zerbitzuan direnak, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 63. artikuluan xedatutakoaren arabera birgaitutakoak, sei hilabetetik gorako etendura-egoeran daudenak eta gainerako borondatezko eszedentziadunak baldin eta egoera horietarako ezarritako gehienezko denbora bete badute.

3.– Ebazpen hau ematen den egunean Ertzaintzako karrerako funtzionarioek inongo lanposturi behin betiko atxikita egon ezik eta deialdiaren xede diren lanpostuei dagozkien kategorietakoak badira, prozedura honetan parte hartu beharko dute eta; halaber, hornitzeko era izendapen askea duten lanpostu huts guztiak eskatu beharko dituzte, betiere lanpostu horiek gordeta dauden kategoriaren arabera bete ahal izanez gero. Horrela egin ezik, nahitaez horietako edozeini atxikiko zaizkio.

4.– Deialdi hau egin aurreko bi urteotan destinoaz merezimendu-lehiaketaren bidez jabetu direnek parte ahal izango dute izendapen askeko sistema erabiliz hornitu behar diren plazak eskatuz.

5.– Hurrengo hauek ezin izango dute parte hartu deialdi honetan:

a) Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik eginkizunen etendura irmoaren administrazio-egoeran daudenak, betiere egoera horretan iraun- bitartean.

b) Lekualdatzeko zehapena izan dutenak, Euskal Herriko Polizia-kidegoen Diziplina Erregimenaren Erregelamenduaren 15. artikuluan jasotakoari jarraituz.

c) Interes partikularrengatiko borondatezko eszedentzia egoeran daudenak baldin eta egoera horretan indarreko araudian eskatzen den gutxieneko denbora eman ez badute.

6.– Baldintzak betetzen direla egiaztatzean eta, hala egokituz gero, deialdian jasotzen diren beste zehaztapen batzuen balorazioa egitean erreferentziatzat hartuko da eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data.

Bigarrena.– Zerbitzu-eginkizunetarako prozeduran parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute zerbitzu aktiboan dauden eta Ertzaintzako Goi-mailako Eskalako intendente-kategoriakoak, Egiterapen Eskalako komisario edo komisariondoko kategorikoak edo ofizial edo ofizialondoko kategoriakoak diren karrerako funtzionario guztiek; baldin eta, eskainitako lanpostuetan aritze aldera, eskatzen diren gainerako baldintza orokorrak eta lanpostuen zerrendan ezarrita dauden eskakizunak betetzen badituzte.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Prozedura honetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2014ko urtarrilaren 9an –barne sartuta– amaituko da.

2.– Deialdi honetan parte hartzeko eskatze aldera 2. eranskin gisa honekin batera doan eskabide-orri normalizatuaren eredua erabiliko da. Bertan behin betiko izaeraz eta/edo zerbitzu-eginkizunetan hornitzekoak diren lanpostuak zehaztuko dira eta; bi kasuetarako, lanpostu batzuk izanez gero, baita lanpostu horien lehentasun-ordena ere.

3.– Eskabideak aurkezteko epea igaro ondoren, aurkeztutako eskabideak lotesleak izango dira sinatu dituztenentzat.

Laugarrena.– Lanpostuen behin betiko hornikuntza izendapen askeko sistemaren bidez.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudiaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, izendapena egiteko premiazkoa izango da hornitu beharreko lanpostua atxikita dagoen administrazio-unitatearen edo -organoaren titularraren aldez aurreko txostena. Txosten horretan izangaien artean egokitasun-proposamena landuko da edo, bestela, deialdia bete gabetzat jotzea proposatuko.

2.– Txostena hamabost egun naturaleko epean emango da.

Bosgarrena.– Behin betiko hornikuntza ebaztea.

1.– Behin betiko atxikipen gisa izendapen askeko sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuak Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen bidez esleituko dira, interesdunei banaka adieraziko baitzaie. Ebazpen hori hamaikagarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz argitaratuko da.

2.– Izendapena egiteko ebazpena arrazoituko da hautatutako izangaiak deialdian eskatutako baldintzak eta gainerako zehaztapenak betetzen dituen eta izendapena egiteko eskumena aipatuz. Nolanahi ere, emandako ebazpenaren funtsa izango da beharrezko prozedura betetzea.

Seigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudia onartu zuen abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren Bosgarren Xedapen Iragankorraren arabera, eta Euskal Herriko Poliziaren Legearen Seigarren Xedapen Iragankorraren aplikazioa kontuan hartuz, funtzionario interesdunari dagokion kategoriako lanpostu hutsik egon ezik, funtzionario hori Segurtasuneko sailburuaren esanetara geratu ahalko da zerbitzu-eginkizunetan bere kategoriari dagozkion funtzioak aldi baterako betetzeko; harik eta bere eskalako eta kategoriako lanpostuei behin-behinean atxiki arte edo zerbitzu-eginkizunetan esleitu arte.

Zazpigarrena.– Izendapen askeko sistemaren bidez hornitutako lanpostua uztea, funtzionarioa behin betiko hari atxikita egonez gero.

1.– Deialdi honen xede diren lanpostuen behin betiko atxikipenaren funtzionario esleipendunak nahi denean lanpostutik kendu ahalko dira. Erabaki horren arrazoiketak beti holakoa erabakitzeko eskumena aipatuko du.

2.– Izendapen askeko lanpostutik bazter utzitako funtzionarioak behin-behinean atxikiko zaizkio, ondorioak lanpostua utzi zuten hurrengo egunetik izanda, herri berean beren eskalako edo kategoriako beste lanpostu huts bati. Holakorik ezean, atxikipena kategoria horretan Ertzaintzan dagoen lanpostu hutsen batean egingo da, lanpostuak betetzeko Araudia onartu zuen abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren 24. artikuluaren 5. zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe.

Zortzigarrena.– Zerbitzu-eginkizunen esleipena.

1.– Euskal Herriko Poliziaren Legearen 72. artikuluaren 1. eta 5. zenbakietan ezarritakoarekin bat, zerbitzu-eginkizunak eman ahalko dira norberaren kategoriakoak ez diren lanpostuak edo funtzioak betetzeko, betiere funtzionario interesdunaren eskala berekoak edo goragokoak izanez gero.

2.– Deialdi honen xede diren lanpostuen behin betiko hornikuntza Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen bidez ebatzi ondoren, zerbitzu-eginkizunak esleituko dira aurkeztutako eskabideak kontuan izanik; baina, horretarako, premiazkoa izango da lanpostu hori atxikita dagoen administrazio-unitatearen edo -organoaren titularrarren aldez aurreko txostena. Txosten horretan izangaien artean egokitasun-proposamena landuko da edo, bestela, deialdia bete gabetzat jotzea proposatuko.

3.– Txostena hamabost egun naturaleko epean emango da.

4.– Zerbitzu-eginkizunaren funtzionario esleipendunari behin betiko atxikita dagoen lanpostua gordeko zaio.

5.– Zerbitzu-eginkizunaren esleipendunak bere kategoriako ordainsariak jasoko ditu, baita betetzen duen lanpostuari dagozkion osagarriak ere.

6.– Zerbitzu-eginkizun hauek borondatezkoak dira eta esleipenak ez du zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainik sortuko.

7.– Zerbitzu-eginkizun hauek nahierara edozein unetan ezeztatu ahalko ditu eman dituen organoak, Euskal Herriko Poliziaren 4/1994 Legearen 72.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bederatzigarrena.– Deialdia ebazteko epea.

Deialdia ebazteko epea hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, baina epe hori luzatu ahal da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 49. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hamargarrena.– Lanpostuaz jabetzea.

Deialdi honen xede den hornikuntzari dagozkion destinoez jabetzea deialdia ebatziko duen ebazpen bidez arautuko da.

Hamaikagarrena.– Prozedura honetan emango diren egintza eta xedapen guztiak Gurenet Atarian argitaratuko dira.

2.– Segurtasuneko sailburuordeak eta Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak elkarrekin emandako ebazpen bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarkia argitaratuko da behin betiko atxikipenak eta zerbitzu-eginkizunak ebatziko dituen ebazpena Gurenet Atarian noiz jarriko den adierazteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarkia argitaratzea epeei begira nahitaezkoa izango da aurkez daitezkeen aurkaratze edo errekurtsoen ondorioetarako.

Hamabigarrena.– Datu pertsonalak babestea.

1.– Prozeduraren kudeaketan izangaiak beren lanbide-zenbakiaren bitartez identifikatuko dira eta datu pertsonalen tratamendua Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzako Langileen Kudeaketa Bateratuko fitxategian egingo da. Fitxategi horren ardura duen administrazio-organoa Giza Baliabideen Zuzendaritza bera da. Norberaren datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzari zuzendutako idazki bidez baliatu ahalko dira. Zuzendaritzaren helbidea hau da: Larrauri Mendotxe bidea, 18; 48950 – Erandio, Bizkaia.

2.– Prozeduraren eraginez aterako diren datu guztiak lehenago aipatutako fitxategian sartuko dira, era horretan hautaketa-prozedura honi aplika dakiokeen araudian aurreikusitakoa behar bezala bete ahal izateko.

Hamahirugarrena.– Aurreikusi ez den guztirako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

Hamalaugarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honen eta bere oinarrien aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko diote Segurtasuneko sailburuari hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 107. eta 114. Artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 11.

Segurtasuneko sailburuordea,
JESÚS MARÍA ZUBIAGA NIEVA.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.

1. ERANSKINA

EBAZPENA, 2013KO ABENDUAREN 11KOA, SEGURTASUNEKO SAILBURUORDEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEAK ELKARREKIN EMANDAKOA; HORREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DA ERTZAINTZAKO KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK BEHIN BETIKO BETETZEKO PROZEDURARAKO, IZENDAPEN ASKEKO SISTEMAREN BITARTEZ ETA ZERBITZU-EGINKIZUNAK ESLEITZEKO PROZEDURA ERABILIZ HORNITU BEHARREKOAK DIRENAK

Kodea	Unitatea	Izena	Kategoria	Herria	B.O.B.	Hornitu beharreko kp.
10011	Ertzaintzaren Burutza	Ertzaintzaren Burua	Superintendentea	Erandio	1	1
70101	Erakunde Harremanetarako eta Komunikaziorako Zerbitzua	Erakunde-Harremanetarako Burua	Intendentea	Erandio	1	1
70102	Erakunde Harremanetarako eta Komunikaziorako Zerbitzua	Erakunde-Harremanak	Komisarioa	Erandio	4	1
60121	Barne Arazoetarako Zerbitzua	Barne Arazoetarako Zerbitzuko Burua	Intendentea	Erandio	1	1
60122	Barne Arazoetarako Zerbitzua	Buru Operatiboa	Komisarioa	Erandio	4	1
20021	Herritarren Babeserako Atala	Herritarren Segurtasunerako Ataleko Burua	Superintendentea	Erandio	1	1
20211	AKZ Nagusia	Unitateburua	Intendentea	Erandio	1	1
20212	AKZ Nagusia	Lazlz-eko Burua	Komisarioa	Erandio	4	1
70201	Prestakuntza Koordinatzeko Zerbitzua	Prestakuntza Koordinatzeko Zerbitzuko Burua	Intendentea	Erandio	1	1
70301	Idazkaritza Nagusia	Idazkaritza Nagusiko Burua	Intendentea	Erandio	1	1
70302	Idazkaritza Nagusia	Arloen Koordinazioko Burua	Komisarioa	Erandio	2	1
70303	Idazkaritza Nagusia	Arloburua	Komisariondokoa	Erandio	4	4
20031	Trafikoko Burutza Nagusia	Trafikoko Buru Nagusia	Intendentea	Erandio	1	1
20041	Ekitaldi Handiak Koordinatzeko Burutza	Ekitaldi Handien Koordinatzaile Nagusia	Intendentea	Erandio	1	1
42001	Laguntza Taktikorako Burutza Nagusia	Laguntza Taktikoko Burua	Intendentea	Iurreta	1	1
40101	Brigada Mugikorraren Unitatea	Unitateburua	Intendentea	Iurreta	2	1
40102	Brigada Mugikorraren Unitatea	Arloen Koordinazioko Burua	Komisarioa	Iurreta	4	1
40103	Brigada Mugikorraren Unitatea	Zentroburua	Komisariondokoa	Iurreta	5	2
40931	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Zaintza eta Erreskateko Burua	Komisarioa	Iurreta	2	1
40903	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Itsas, Urpekaritza eta Mendi Arloko Burua	Komisariondokoa	Iurreta/Getxo	5	1
40905	Zaintza eta Erreskate Unitatea	Helikoptero Arloko Burua	Komisariondokoa	Iurreta	2	1
40301	Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea	Unitateburua	Komisarioa	Iurreta	2	1
40302	Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea	Kudeaketa Teknikoko Burua	Komisariondokoa	Iurreta	2	1

Kodea	Unitatea	Izena	Kategoria	Herria	B.O.B.	Hornitu beharreko kp.
43001	Erakundeen Segurtasunerako Burutza Nagusia	Erakundeen Segurtasuneko Burua	Intendentea	Berrozi	1	1
40811	Babes eta Segurtasuneko Unitatea	Babes Unitateko Burua	Komisarioa	Berrozi	2	1
40812	Babes eta Segurtasuneko Unitatea	Zentroburua	Komisariondokoa	Berrozi	3	2
40701	Esku-Hartze Unitatea	Esku-Hartze Unitateko Burua	Komisarioa	Berrozi	2	1
40601	Txakur Unitatea	Txakur Unitateko Burua	Komisarioa	Berrozi	4	1
40501	Eraikinen Segurtasunerako Unitatea	Segurtasunerako Unitateko Burua	Komisarioa	Berrozi	4	1
20301	Arabako Lurralde Burutza	Lurralde-Burua	Intendentea	Vitoria-Gasteiz	1	1
20331	Arabako Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Inteligentziako Lurralde-Burua	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz	4	1
20341	Arabako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Lurraldeko Ikerketa Kriminaleko Burua	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz	4	1
20342	Arabako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Buru Operatiboa	Komisariondokoa	Vitoria-Gasteiz	5	1
20610	Arabako Lurraldeko AKZ	Lurraldeko AKZ-ko Burua	Komisariondokoa	Vitoria-Gasteiz	5	1
20351	Arabako Herritarren Babeseko Lurralde Zerbitzua	Herritarren Babeseko Burua	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz	2	1
21501	Miñoien Sekzioa	Unitateburua	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz	4	1
21511	Miñoien Sekzioa	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Vitoria-Gasteiz	5	1
21801	Guardiako Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Guardia	4	1
21823	Guardiako Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Guardia	5	1
21901	Laudioko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Laudio	4	1
21923	Laudioko Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Laudio	5	1
22011	Gasteizko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Intendentea	Vitoria-Gasteiz/Iruña Oka	2	1
22023	Gasteizko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz/Iruña Oka	4	1
22024	Gasteizko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz/Iruña Oka	4	1
22013	Gasteizko Ertzain-Etxea	Zentroburua	Komisariondokoa	Vitoria-Gasteiz/Iruña Oka	5	4
21201	Arabako Trafikoko L.U.	Unitateburua	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz	4	1
21223	Arabako Trafikoko L.U.	Bide Segurtasuneko Burua	Komisariondokoa	Vitoria-Gasteiz	5	1
21224	Arabako Trafikoko L.U.	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Vitoria-Gasteiz	5	1
20401	Bizkaiko Lurralde Burutza	Lurralde-Burua	Intendentea	Erandio	1	1
20431	Bizkaiko Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Inteligentziako Lurralde-Burua	Komisarioa	Erandio	4	1
20441	Bizkaiko Ikerketako Lurralde Zerbitzua	Lurraldeko Ikerketa Kriminaleko Burua	Komisarioa	Erandio	4	1
20442	Bizkaiko Ikerketako Lurralde Zerbitzua	Buru Operatiboa	Komisariondokoa	Erandio	5	1
20710	Bizkaiko Lurraldeko AKZ	Lurraldeko AKZ-ko Burua	Komisariondokoa	Erandio	5	1
20451	Bizkaiko Herritarren Babeseko Lurralde Zerbitzua	Herritarren Babeseko Burua	Komisarioa	Bilbao	2	1
21701	Foralen Sekzioa	Foralen Burua	Komisarioa	Bilbao	4	1

Kodea	Unitatea	Izena	Kategoria	Herria	B.O.B.	Hornitu beharreko kp.
21703	Foralen Sekzioa	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Bilbao	5	1
22101	Balmasedako Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Balmaseda	4	1
22111	Balmasedako Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Balmaseda	5	1
22201	Basauriko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Basauri	4	1
22223	Basauriko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Basauri	5	1
22224	Basauriko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Basauri	5	1
22301	Bilboko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Intendentea	Bilbao	2	1
22323	Bilboko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisarioa	Bilbao	4	1
22324	Bilboko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisarioa	Bilbao	4	1
22303	Bilboko Ertzain-Etxea	Zentroburua	Komisariondokoa	Bilbao	5	4
22401	Durangoko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Durango	4	1
22423	Durangoko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Durango	5	1
22424	Durangoko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Durango	5	1
22501	Erandioko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Erandio	4	1
22523	Erandioko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Erandio	5	1
22524	Erandioko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Erandio	5	1
22601	Galdakaoko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Galdakao	4	1
22623	Galdakaoko Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Galdakao	5	1
22701	Gernika-Lumoko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Gernika	4	1
22723	Gernika-Lumoko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Gernika	5	1
22724	Gernika-Lumoko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Gernika	5	1
22801	Getxoko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Getxo	4	1
22823	Getxoko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Getxo	5	1
22824	Getxoko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Getxo	5	1
22901	Muskizko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Muskiz	4	1
22923	Muskizko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Muskiz	5	1
22924	Muskizko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Muskiz	5	1
23001	Ondarroako Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Ondarroa	4	1
23023	Ondarroako Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Ondarroa	5	1
23101	Sestaoko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Sestao	4	1
23123	Sestaoko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Sestao	5	1
23124	Sestaoko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Sestao	5	1

Kodea	Unitatea	Izena	Kategoria	Herria	B.O.B.	Hornitu beharreko kp.
21301	Bizkaiko Trafikoko L.U.	Unitateburua	Komisarioa	Erandio	4	1
21323	Bizkaiko Trafikoko L.U.	Bide Segurtasuneko Burua	Komisariondokoa	Erandio	5	1
21324	Bizkaiko Trafikoko L.U.	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Erandio	5	1
20501	Gipuzkoako Lurralde Burutza	Lurralde-Burua	Intendentea	Oiartzun	1	1
20531	Gipuzkoako Inteligentziako Lurralde Bulegoa	Inteligentziako Lurralde-Burua	Komisarioa	Oiartzun	4	1
20541	Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Lurraldeko Ikerketa Arloko Burua	Komisarioa	Oiartzun	4	1
20542	Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Lurralde Zerbitzua	Buru Operatiboa	Komisariondokoa	Oiartzun	5	1
20810	Gipuzkoako Lurraldeko AKZ	Lurraldeko AKZ-ko Burua	Komisariondokoa	Oiartzun	5	1
20551	Gipuzkoako Herritarren Babeseko Lurralde Zerbitzua	Herritarren Babeseko Burua	Komisarioa	Oiartzun	2	1
20552	Gipuzkoako Herritarren Babeseko Lurralde Zerbitzua	PALZ-ko Burua	Komisarioa	Oiartzun	4	1
21601	Mikeleteen Sekzioa	Mikeleteen Burua	Komisarioa	Oiartzun	4	1
21603	Mikeleteen Sekzioa	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Oiartzun	5	1
23301	Azkoitiko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Azkoitia	4	1
23323	Azkoitiko Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Azkoitia	5	1
23401	Beasaingo Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Beasain	4	1
23423	Beasaingo Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Beasain	5	1
23510	Bergarako Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Bergara	4	1
23523	Bergarako Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Bergara	5	1
23524	Bergarako Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Bergara	5	1
23601	Donostiako Ertzain-Etxea	Unitateburua	Intendentea	Donostia	2	1
23623	Donostiako Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisarioa	Donostia	4	1
23624	Donostiako Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisarioa	Donostia	4	1
23603	Donostiako Ertzain-Etxea	Zentroburua	Komisariondokoa	Donostia	5	4
23701	Eibarko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Eibar	4	1
23723	Eibarko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Eibar	5	1
23724	Eibarko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Eibar	5	1
23801	Hernaniko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Hernani	4	1
23823	Hernaniko Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Hernani	5	1
23824	Hernaniko Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Hernani	5	1
23901	Irungo Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Irun	4	1
23923	Irungo Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Irun	5	1
23924	Irungo Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Irun	5	1

Kodea	Unitatea	Izena	Kategoria	Herria	B.O.B.	Hornitu beharreko kp.
24001	Errenteriako Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Errenteria	4	1
24023	Errenteriako Ertzain-Etxea	Herritarren Babeseko Burua	Komisariondokoa	Errenteria	5	1
24024	Errenteriako Ertzain-Etxea	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Errenteria	5	1
24101	Tolosako Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Tolosa	4	1
24123	Tolosako Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Tolosa	5	1
24201	Zarauzko Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Zarautz	4	1
24223	Zarauzko Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Zarautz	5	1
24301	Zumarragako Ertzain-Etxea	Unitateburua	Komisarioa	Zumarraga	4	1
24323	Zumarragako Ertzain-Etxea	Herri Babeseko eta Ikerketako Burua	Komisariondokoa	Zumarraga	5	1
21401	Gipuzkoako Trafikoko L.U.	Unitateburua	Komisarioa	Oiartzun	4	1
21423	Gipuzkoako Trafikoko L.U.	Bide Segurtasuneko Burua	Komisariondokoa	Oiartzun	5	1
21424	Gipuzkoako Trafikoko L.U.	Ikerketa Arloko Burua	Komisariondokoa	Oiartzun	5	1
30011	Ikerketa Kriminalerako Ataleko Burutza	Ikerketa Kriminalerako Ataleko Burua	Superintendentea	Erandio	1	1
30431	Ikerketa Kriminaleko eta P. Judizialeko Burutza	Ikerketa Kriminaleko eta P. Judizialeko Burua	Intendentea	Erandio	1	1
30432	Ikerketa Kriminaleko eta P. Judizialeko Burutza	Ikerketa Kriminaleko eta P. Judizialeko Arlo Nagusiko Burua	Komisarioa	Erandio	2	1
30433	Ikerketa Kriminaleko eta P. Judizialeko Burutza	Koordinazio Operatibo eta Teknikoko Arlo Nagusiko Burua	Komisarioa	Erandio	2	1
30434	Ikerketa Kriminaleko eta P. Judizialeko Burutza	I.K. eta Polizia Judizial Arloetako Burua	Komisariondokoa	Erandio	4	1
30435	Ikerketa Kriminaleko eta P. Judizialeko Burutza	Koordinazio Teknikoko Burua	Komisariondokoa	Erandio	4	1
30601	Joko eta Ikuskizun Unitatea	Unitateburua	Komisarioa	Bilbao	4	1
25101	Segurtasun Pribatua	Unitateburua	Komisarioa	Erandio	4	1
30598	Polizia Zientifikoaren Burutza	Polizia Zientifikoaren Burua	Intendentea	Erandio	2	1
30599	Polizia Zientifikoaren Burutza	Kudeaketa Operatibo eta Teknikoko Burua	Komisarioa	Erandio	4	1
80101	Inteligentzia Bulego Nagusia	Inteligentzia Bulego Nagusiko Burua	Intendentea	Erandio	1	1
80102	Inteligentzia Bulego Nagusia	Buru Operatiboa	Komisarioa	Erandio	2	2
80103	Inteligentzia Bulego Nagusia	Zentroburua	Komisariondokoa	Erandio	4	3

OHARPENA: Agiri honetako datu pertsonalak 15/1999 Lege Organikoaren arabera erabiliko dira, eta Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzak dituen langileen administrazio jarduera guztiak jasotzea eta kudeatzea helburu duen fitxategi batean bilduko dira. Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko edo inori ematen ez uzteko eskubidea erabili nahi izanez gero, artxibategiaren arduraduna den Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzara jo dezakezue: Larrauri Mendotxe Bidea, 18, 48950 Erandio, Bizkaia

ADVERTENCIA: Los datos personales contenidos en el impreso serán tratados conforme a la Ley Orgánica 15/1999 e incorporados a un fichero cuya finalidad es el registro y gestión de todos los actos que afectan a la vida administrativa del personal gestionado por la Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Interior. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición pueden ejercitarse ante el responsable del fichero: Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Interior, con domicilio en C/ Larrauri Mendotxe bidea, 18, 48950 Erandio-Bizkaia.

2. ERANSKINA

ESKAERA. 2013-12-11KO EBAZPENA (C90/C91)

EUSKO JAURLARITZA – SEGURTASUN SAILA **GOBIERNO VASCO – DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD**	
Zenbaki profesional hau duen Ertzaintzako funtzionarioak:	

Abizenak eta izena:

……..

2013ko abenduaren 11ko Ebazpen bidez egindako deialdiari loturik, ***HAU ESKATZEN DU***

_____

Behin betiko hornitzeko *deialdian* ***(C90)*** *onartua izateko lehentasun-ordena honen arabera:*

1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a	7.a	8.a
9.a	10.a	11.a	12.a	13.a	14.a	15.a	16.a
17.a	18.a	19.a	20.a	21.a	22.a	23.a	24.a
25.a	26.a	27.a	28.a	29.a	30.a	31.a	32.a
33.a	34.a	35.a	36.a	37.a	38.a	39.a	40.a
41.a	42.a	43.a	44.a	45.a	46.a	47.a	48.a
49.a	50.a	51.a	52.a	53.a	54.a	55.a	56.a
57.a	57.a	58.a	59.a	60.a	61.a	62.a	63.a
64.a	65.a	66.a	67.a	68.a	69.a	70.a	71.a
72.a	73.a	74.a	75.a	76.a	77.a	78.a	79.a

Zerbitzu-eginkizunen *erregimenean hornitzeko deialdian* ***(C91)*** *onartua izateko lehentasun-ordena honen arabera:*

1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a	7.a	8.a
9.a	10.a	11.a	12.a	13.a	14.a	15.a	16.a
17.a	18.a	19.a	20.a	21.a	22.a	23.a	24.a
25.a	26.a	27.a	28.a	29.a	30.a	31.a	32.a
33.a	34.a	35.a	36.a	37.a	38.a	39.a	40.a
41.a	42.a	43.a	44.a	45.a	46.a	47.a	48.a
49.a	50.a	51.a	52.a	53.a	54.a	55.a	56.a
57.a	57.a	58.a	59.a	60.a	61.a	62.a	63.a
64.a	65.a	66.a	67.a	68.a	69.a	70.a	71.a
72.a	73.a	74.a	75.a	76.a	77.a	78.a	79.a

.....(e)n, 2013ko .....aren..... (e)an.

ADMINISTRAZIOAREN
SARRERA ZIGILUA.

Izpta.:.....

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

BORRADOR